

**HISTORIAN ZEHAR SAN ANDRES ETXEBARRIKO
ELIZAREKIN ZERIKUSIRIK IZAN DUTEN
ALDERDI BATZUK**

Augustin Zubikaraik *Etxebarria* liburuan aditzera emandako jakingarri batzuk, On Bernardino Barrutia Erizi ikasitako batzuk eta han-hemen batu ditudan beste batzuk batera bildu nahi izan ditut saiakeratxo honetan, gure elizatean jazotako gertakari batzuk eta han oraintsu arte zaindutako ekandu berezi batzuk zabaltzeko.

Andres Deunaren eta Donejakue Apostoluaren izena.—1671. urteko liburuetan lehenengo aldiz aipatu ziren Donejakue Apostoluaren jaiak, hango maiordomoa Simon Sarasua zela. Aurreko urteetako liburuetan, uztailaren 8an ere jai ospa

tzen zen Andres Deunak egindako miraria zela-eta. Ez da zehazten zein mirari mota egin zuen, edozelan ere, orduz gero Andres Deunaren jaiak udan eta neguan ospatzen ziren. Donejakue Apostoluaren jaiak ospatzen hasi zirenean, Andres Deunaren inguruan udan ospatzen ziren jaiak galdu egin ziren.

San Andres Etxebarriko elizan egindako lapurretak.—XVII. gizaldiaren amaieran zilarrezko lanpara bi lapurtu ziren, baina ezinezkoa izan zen haien lapurra nor izan zen jakitea. Hamailka urte geroago beste albiste bat jakin zuten, Donostia inguruko Astigarraga herritik helduta; albiste haren arabera, herri hartako alkateak agindu zuen kanpotar biri lanpara bi kentzeko,

eta bertan uzteko gordailu lege. Hori behin jakin eta gero, As-tigarragaratu ziren Etxebarriko abadeetarik bat, Juan Barroeta, alkatea, Martin Urrusolokoa, eta maiordomoa, Bartolome Adorriagakoa. Froga gisa, lapurtutako lanparen antzeko beste bat eroan zuten. Betiere, lanparak urte askotan jabe barik egon zirenez gero, Iruñeko gotzainak agindu zuen beraiek urtzeko, eta zilarren balioa amoinetarako banatu. Nolanahi ere den, urtu baino lehen, beraiek pisatu eta paper baten marrazteko agindu zuen, inoiz jabea azaltzen bazen, jabetasuna argitu eta balioa atzera eman ahal izateko. Marrazkiari esker, lanparak Etxebarrikoak ez zirela ikusi ahal izan zuten; hortaz, alferriko bidaia egin zuten, eta 100 erreal gastatu zituzten hiru ordezkarien kostuarengatik.

xviii. gizaldian, herriz, zilarrezko lanpara bat, kateak eta ko-roak ostu ziren. Ez da ageri liburuetan zelan jazo zen, ez eta nortzuk izan ziren lapurrak ere. Txomin Maguregik, maiordomoak, 47 erreal gastatu zituen araketak egiten, baina ez zuen jakinbiderik erdietsi. Abokatuarengana jo zuen, bai eta Kalagurriko gotzainarengana ere, eta beroni eskatu zion lapurrak deskomikatzeko. Halaz guztiz, guztia alferrik gertatu zen.

xix. gizaldiaren lehen erdialdean, zulo bat egin zuten ezezagun batzuek sakristiaren horman, hilerri zaharraren aldetik. Zuloa estaltzeko, 3 gurdikada harea (8 erreal) behar izan ziren, eta hargin batek egun osoan lan egin behar izan zuen ataza burutzeko (8 erreal). Ez zen lapurren arrastorik ere aurkitu.

Badirudi gure elizara sartu diren ohoinak ez direla ezjakin hutsak.

Errespontsua.—On Bernardino Barrutia Erizek San Andres Etxebarriko elizburu legez jardun duen arte, 1995. urtea arte, ekandu horrek iraun du gure elizatean. Berak erretiroa hartutakoan, oster, ohitura hori galdu egin da, zoritxarrez!

Errespontsua elizpean esaten zen. Izan ere, elizkizunak amaitu eta gero, meza nagusia amaitu eta gero, abadeak eliz-

pera urteten zuen akolitoak lagun; elizako atearen ondoan gelditzen zen, beraren atzean gizonezkoek urteten zuten, eta abadearen isopoa ukitu eta gero aitarena egiten zuten; horrela egiten zuten gizonezko guztiek, banan-banan, eta urten ahala biribila osatzen zuten elizpean. Behin biribila osatu eta gero, erresponentsua esaten zuten herrian hildako guztien arimen alde.

Antzina erresponentsu bana egiten zitzairen hildako guztiei urte biau zehar, baina ohitura hori galdu egin zen.

Errito berezia.—Maiozkoa bere etxera ezkontzen zenean, ezkondu eta gero (diadekanpo egin eta gero) meza nagusira elizaratzen ziren lehenengo igandean, etxeko andre zaharrak, berria etxean hartzen zuenak, abadea eta etxeko andre berria lagun zituelarik, eliz barrutik ibilbide hau egiten zuen: elizaren erdiko iraganbide nagusitik joan eta etxeko hildakoen hilarrien aurrean geratzen zen aurpegian estalki beltza eta eskuan kandela zituelarik, eta hildako bakoitzaren aurrean erresponentsua esaten zuen. Etxeko andre berriaren familiari zegokion hilarriaren aurrean erresponentsu bi esaten ziren. Ondorik, etxeko andre berria gizonaren familiaren hilarriaren aulki nagusian belaukatzen zen eta, beraren atzean, etxeko andre zaharra jarri. Horren ulerbidea hauxe da On Bernardino Barrutiaren iritzian: etxeko andre berriaren familia berriaren inguruko erlijio eta hiletan arazoez aurrerantzean arduratuko den pertsona herriaren aurrean eta hildakoen aurrean aurkeztea.

Ekandu hori orain ia 40 urte galdu zen. Izan ere, taxu hortetako azken zeremonia San Andres Etxebarriko elizan Laureano Gisasola Gandiaga eta Juana Gandiaga Espillaren arteko 1959ko otsailaren 7ko ezkontzaren ostean egin zen.

Jakin badakigu garaiak aldatu egiten direla eta hala behar dela. Dena dela, hausnarketa txiki bat egin nahiko nuke: pen-tsatu orduko gauzak bururatzen diren garaiotan lehendik zegoen ohitura, sinesmen edo beste edozer alde batera uzten dugu eta bertan behera lagatzen dugu eta, geroago, haren ordeztzer jarririk ez dugu. Horixe da niretzat kezkarria.

Egin-eginean ere, errespontsuaren ekanduak elizaz bezala gizonez egiten zuen bere zeregina; herriak errespontsu orokor hori egiten zuenean, eliz erritua egiteaz gainera, herri sena lantzen zuen, talde sena lantzen zuen, herri guztiok talde batekoak zirelako gogoa erretzen zuen. Horrexegatik dut min lehendik zetozen ohituren bat galtzen denean. Hain zuzen, arazoa ez da eliz arazo hutsa, ezpada erkidego eta talde arazoa. Eta Elizak egundaino zaintzen izan dituen ohitura edo ekandu horiek galtzeak elizaz harantzagoko ondorio lazgarriak ekar ditzake guztiontzat, sinestedun nahiz sinesgabeentzat.

Ez al da horrela gertatuko!

Anjel Lobera Revilla

Etxebarrian, 1998ko abuztuaren 25ean